

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ERRIBERABEITIKO UDALA

#### Ondasun higiezinaren gaineko zergaren bilketa egiteko aldiari hasiera ematea

Jendaurrean jartzen da ireki dela landa eta hiri ondasun higiezinaren eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko ordainketak egiteko aldia.

#### I. ORDAINTZEKO EPEA

##### A) Borondatezko epea

Lehenengo ordainketa. 2020ko abuztuaren 1etik urriaren 1era. Udala arduratuko da helbideratutako ordainagiriak kobratzeaz, eta hori 2020ko abuztuaren 10ean egingo du.

Bigarren ordainketa. 2020ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra. Udala arduratuko da helbideratutako ordainagiriak kobratzeaz, eta hori 2020ko azaroaren 10ean egingo du.

##### B) Premiamendu aldia.

a. Lehenengo epea, 2020ko urriaren 2tik aurrera.

b. Bigarren epea, 2021eko urtarrilaren 2tik aurrera.

Bi epeetan, administrazio premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, dagokion errelegua aplikatuta (otsailaren 28ko 6/2005 Foru Araua, Arabako zergen orokorra, 28. artikulua).

##### C) Helbideratu gabeko ordainketak

Ordainketa helbideratuta ez dutenek Kutxabanken bulegoan egin dezakete ordainketa borondatezko epean, ordainketa pasabidez, edo udal bulegoetan, jendaurreko ordutegian eta kreditu txartelaz, bai eta banku transferentzia bidez ere.

#### II. GOMENDIOAK

Banku helbideratzeen altak edo aldaketak eta gerora jakinarazpenak egiteko helbide aldaketak Erriberabeitiko Udalean izapidetu behar dira: San Martin plaza 1, Ribabellosa.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da hau.

Ribabellosa, 2020ko uztailaren 20a

*Alkatea*

**MIREN SANTAMARÍA MARTÍNEZ**